

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

EKONOMIA GARAPENAREN, BERRIKUNTZAREN ETA DEMOGRAFIA ERRONKAREN SAILA

DEMOGRAFIA ERRONKAREN ZUZENDARITZA

370/2021 Erabakia, ekainaren 15ekoa, zeinaren bidez onesten baita 5.000 bizilagun baino gutxiago dituzten Arabako herriguneetan eta landa zonetako negozio eta zerbitzu profesionaletan zuzeneko kontsumoa sustatzeko bonu programaren deialdia, baita dirulaguntzen plan estrategikoaren aldaketa ere

Arabako Foru Aldundiak lehentasunezkoa du Arabako Lurralde Historikoko despopulatzearen aurka borrokatzea. Horretarako, Demografia Erronkaren Zuzendaritza berria sortu du, Arabako lurraldeko landa inguruneko egungo despopulatze egoera leheneratzera bideratutako ekintzak bultzatu eta koordinatzeko.

Demografia Erronkaren Zuzendaritzak eskumenak dauzka despopulatze arriskuaren aurkako ekonomia garapen jasangarrirako estrategien kontuan.

Demografia Erronkaren Zuzendaritzak adierazi du landa ingurunean jarduera ekonomikorako pizgarriak behar direla.

COVID-19k sortutako osasun krisiak bestelakotu egin du lehenago geneukan errealitatea, eta ekonomia jardueraren geldialdia eragin du. Horregatik, premiazkoa da bateraturik jardutea, osasun, ekonomia eta gizarte krisi honen ondorioak ezeztatzeko.

Landa zonetako zerbitzu eta denda txikiak bereziki ari dira jasaten haren eragina. Izan ere, beren fakturazioaren zati handi bat galdu dute udalerrri batetik beste batera mugitzeko mugen ondorioz.

Demografia Erronkaren Zuzendaritzak kontsumoa sustatzeko programa bat bultzatu nahi du, merkatuan landa zonetako negozio eta zerbitzu profesionaletarako kontsumo bonuak jarritz. Ekimen hori Araba Market plataformaren bitartez egingo da. Zuzendaritza honek diseinatutako Interneteko tresna bat da, Arabako Lurralde Historikoko landa inguruneko ekonomia sustatzeko helburua duena.

Ebazpen honen bidez, onesten da 5.000 bizilagun baino gutxiago dituzten Arabako herriguneetan eta landa zonetako negozio eta zerbitzu profesionaletan zuzeneko kontsumoa sustatzeko bonu programaren deialdia.

Horregatik, Ekonomia Garapenaren, Berrikuntzaren eta Demografia Erronkaren Saileko foru diputatuaren proposamenez, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Onestea 5.000 bizilagun baino gutxiago dituzten Arabako herriguneetan eta landa zonetako negozio eta zerbitzu profesionaletan zuzeneko kontsumoa sustatzeko bonu programaren deialdia, l. eranskinean arautzen dena.

Bigarrena. Deialdiaren zenbatekoa 150.000,00 euro da eta 200.000,00 eurotara handitu ahal izango da, Arabako Foru Aldundiaren 2021eko aurrekontuko 15.201.9700.48.000.1 "Bonu Plan Estrategikoa" partidaren kontura.

Hirugarrena. Aldatzea Diputatuen Kontseiluaren abenduaren 27ko 840/2019 Erabakiaren bidez onetsi zen Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren eranskina, ebazpen honekin batera doan II. eranskinaren edukia haren barruan jasoz.

Laugarrena. Impronta Soluciones SL laguntza deialdi honetako entitate laguntzailea izango da bonu kanpaina gauzatzeko, eta bete beharko ditu azaroaren 17ko 38/2003 Legean (Dirulaguntzen Lege Orokorra) entitate laguntzaileei ezarritako eginbeharrak.

Bosgarrena. Ekonomia Garapenaren, Berrikuntzaren eta Erronka Demografikoaren Saileko foru diputatuari ahalmena ematen zaio laguntza deialdi hau ongi garatzeko, aplikatzeko eta interpretatzeko beharrezkoa den egintza eta xedapen oro har ditzan eta erakunde laguntzaileekiko hitzarmenak izenpetu ditzan.

Seigarrena. Foru erabaki honen bidez onesten den deialdia ALHAOn argitaratuko da, eta argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Zazpigarrena. Ebazpen honek administrazio bidea amaitzen du eta, urriaren 1eko 39/2015 Legeak (Administrazio Prozedura Erkidearena) 123. artikuluan xedatzen duenaren arabera, haren aurka aukerako berraztertze errekurtsoa jar dakioko diputatu nagusiari hilabeteko epean, egintza hau jakinarazten den egunaren hurrengotik aurrera, edota zuzenean aurkaratu daiteke administrazioarekiko auzietarako Gasteizko epaitegietan, bi hilabeteko epean, egintza hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko ekainaren 15a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Lehen diputatu nagusiordea eta Ekonomia Garapenaren, Berrikuntzaren eta Demografia

Erronkaren Saileko diputatua

MARÍA PILAR GARCÍA DE SALAZAR OLANO

Demografia Erronkaren zuzendaria

IÑAKI GUILLERNA SAENZ

I. ERANSKINA

5.000 BIZILAGUN BAINO GUTXIAGO DITUZTEN ARABAKO HERRIGUNEETAN, LANDA INGURUNeko NEGOZIOETAN, ZUZENEKO KONTSUMOA SUSTATZEKO BONU PROGRAMAREN ARAUDIA

1. Zioen azalpena

Arabako Foru Aldundiak lehentasunezkoa du Arabako Lurralde Historikoko despokatzearen aurka borrokatzea. Horretarako, Demografia Erronkaren Zuzendaritza berria sortu du, Arabako lurraldeko landa inguruneko egungo despokatze egoera leheneratzera bideratutako ekintzak bultzatu eta koordinatzeko.

Demografia Erronkaren Zuzendaritzak eskumenak dauzka despokatze arriskuaren aurkako ekonomia garapen jasangarrirako estrategien kontuan.

Demografia Erronkaren Zuzendaritzak adierazi du landa ingurunean jarduera ekonomikorako pizgarriak behar direla.

COVID-19k sortutako osasun krisiak larriagotu egin du lehenago ere bazegoen errealitatea, hau da, Arabako Lurraldeko Historikoko landa-landako zonetan dagoen jarduera ekonomiko urria. Ekonomia jardueraren geldialdi handiagoa eragin du eta, horregatik, premiazkoa da bateraturik jardutea, osasun, ekonomia eta gizarte krisi honen ondorioak ezeztatzeko.

Landa zonetako negozio txikiak bereziki ari dira jasaten haren eragina. Izan ere, beren ikusgaitasunaren eta, ondorioz, fakturazioaren zati handi bat galtzen dute udalerrri batetik beste batera mugitzeko mugengatik.

Demografia Erronkaren Zuzendaritzak jarduera ekonomikoa sustatzeko programa bat bultzatu nahi du, merkatuan landa zonetako negozio eta zerbitzu profesionaletarako kontsumo bonuak jarritz, Araba Market plataformaren bitartez. Zuzendaritza honek diseinatutako Interneteko tresna bat da, Arabako Lurralde Historikoko landa inguruneko ekonomia sustatzeko helburua duena, beren jarduera eremu horretan egiten duten negozioen presentzia jasotzen duena.

2. Programaren xedea eta helburuak

Programa honen xedea da "Araba Market Bonuak" izeneko bonu sistema arautzea, herritarrek Araba Market plataforman dauden Arabako herrietako saltokietan kontsumitzea sustatzen duena, horrela landa zonan jarduera ekonomikoa suspertzen laguntzeko.

3. Onuradunak

Programa honen onuradunak dira Arabako Foru Aldundiak eta Vital Fundazioak salgai jarriko dituzten bonuetakoren bat ezarritako bideetatik eskuratzen duten 18 urtetik gorako pertsona fisikoak.

Bonuen banaketa NAN zenbakiarekin loturik egingo da. Hala, zenbaki bakoitzeko, 10 bonu eskuratu ahal izango dira guztira (200 euroko gastua oro har, haietako 80 euro finantzaturik).

Bonuak eskuratzen dituztenek ondoren adierazten den diru kopurua ordaindu beharko dute. Arabako Foru Aldundiak eta Vital Fundazioak egindako ekarpena ez itzultzeko dirulaguntza izango da.

Herritarrek ordaindutako diru kopuruaren eta Arabako Foru Aldundiak eta Vital Fundazioak egindako ekarpenaren batura bonuaren balio faziuala izango da (balio osoa).

4. Diruz lagundu daitezkeen gastuak eta bonuen balioa

Arabako Lurralde Historikoko landa zonan jarduera ekonomikoa sustatzeko programan bonu mota bakarra dago, jarduera guztietarako balio duena.

Araudi honetan ezarritakoari dagokionez, diruz lagundu daitezkeen gastuak izango dira bonuei aplikatzen zaizkien hobariak, ondoko irizpide hauen arabera:

- Bonuaren prezioa: 12,00 euro
- Arabako Foru Aldundiaren eta Vital Fundazioaren ekarpena: 8,00 euro
- Bonuaren balio osoa (faziala), guztira: 20,00 euro

5. Finantzaketa

Bonuak finantzatzeko kreditua, gehienez ere, 150.000 euro da. Kopuru horretatik, Vital Fundazioak 100.000 euro jarriko ditu, eta Arabako Foru Aldundiak 50.000 euro. Bonuak amaitu eta aurrekontu kreditu nahikoa izanez gero, Arabako Foru Aldundiak 50.000 euro gehiagora arte gehitu ahal izango ditu.

Bonuak bi eratan banatuko dira: presentziala, landa negozioaren lokalean bertan, gastua egiteko garaian; eta aplikazio informatiko baten bitartez, zeinean erosleak alde aurretik esku-ratuko baitu bonua, gastua egin baino lehenago.

6. Programaren indarraldia

Onuradunek programaren hasieratik 2021eko abenduaren 24ra arte erosi ahal izango dituzte bonuak, edo aurrekontuko esleipena agortzen den arte, egun hori baino lehenago gertatzen baldin bada.

Bonuen erosketa zuzenean kanpainari atxikitako establezimenduetan egingo da, edo helburu horrekin sortutako plataforma informatiko baten bitartez. Kasu batean nahiz bestean, bide informatikoz kontrolatuko da bonu kopurua negozio eta onuradun bakoitzeko.

Bonuak herritarrek erosteko eskura jartzea Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak egoera epidemiologikoaren bilakaeraren ondorioz hartzen dituen berariazko prebentzio neurrien menpean egongo da, bai eta programaren garapen egokia baldintzatu dezakeela uste den edo harekin lortu nahi diren helburuak hobeki erdiesteko ondorioa duen beste edozein inguruabarren menpean ere.

Beste alde batetik, gastua 2021eko abenduaren 30era arte egin beharko da, ez baitira diruz lagunduko egun hori baino geroago egindako erosketak. Egunari dagokionez, jaramon egingo zaio faktura edo tiket egokian jarritakoari, eta ez da onartuko geroagoko fakturarik.

Hala ere, Arabako Foru Aldundiak eta Vital Fundazioak programaren indarraldia luzatu ahal izango dute hala egitea komenigarria baldin bada interes publikoko arrazoiengatik, behar bezala frogatuta.

Negozio bakoitza, gehienez ere, 3.760 euroren onuradun izan daiteke guztira (haietatik 1.504 diruz lagundurik). Diru kopuru hori urriaren 31 baino lehen erabili beharko da. Hala ere, azaroaren 1ean aurrekontu esleipenik konprometitu gabe baldin badago, hau da, bonu librerik geratzen bada, enpresa bakoitzeko muga beste 2.500 euroko gastuaz zabalduko da berriz (haietako 1.000 diruz lagundurik).

Bonuak erosten dituen pertsona fisiko bakoitzak, halaber, bonuetan 80 euroko onura izan dezake gehienez. Hortaz, 200 euroko gastua egin ahal izango du.

7. Prozedura eta establezimenduak atxikitzeko baldintzak

Atxikitako erakundeak:

Kanpaina honi atxikitako entitatetzat hartu ahal izango da edozein pertsona fisiko edo juridiko, bere enpresa jarduera merkataritza, kultura, ostalaritza, turismo eta zerbitzu profesionalen arlokoa bada, establezimendu bat zabaldua badauka 5.000 bizilagun baino gutxiago dituen Arabako Lurralde Historikoko edozein herrigunetan, eta alta emanda badago dokumentu hone-tako 13. apartatuan zerrendatzen diren Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergako epigrafeetako batean.

Enpresak izatekotan, mikroenpresatzat emanak izan beharko dira, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak bere 13. artikuluan ezarritako baldintzen arabera.

Salbuespenez, parte hartu ahal izango dute eranskin horretan adierazitakoez beste talde edo epigrafeetan dauden enpresek, baldin eta Arabako Foru Aldundiak eta Vital Fundazioak uste badute haien ezaugarriak eta jarduera bat datozela programa honen izaerarekin eta helburuekin.

Entitateek betiere alde zuzenetik alta emanda egon beharko dute Araba Market plataforman (www.arabamarket.eus). Ez da beharrezkoa, ordea, Araba Market plataforman izena emandako entitateek bonuen kanpainan parte hartzea. Bonuei atxikitzea borondatezkoa da Araba Market-eko landa negozioentzat.

Kanpainan parte hartzeko prozedura:

Deskontu bonuen kanpainan parte hartzeko, entitateak edo establezimenduak eskatu beharko du hari atxikitzea. Eskabideak, formulario elektronikoko ereduaren arabera, Araba Market-ek helburu horrekin garatutako plataforma teknologikoaren bidez aurkeztu beharko dira. Araba Market plataforman izena emateko garaian nahiz geroagoko edozein unetan egin daiteke atxikitzea.

Deialdi honetako 14. apartatuan zehazten diren agiriarekin aurkeztu beharko da atxikitzeko eskaera.

Eskabidean edo harekin batera aurkeztu behar diren agirietan akatsik badago edo osorik ez badaude, hamar egun balioduneko epea emango zaie interesa duten erakundeei aurkitutako akatsak konpontzeko. Epe hori igaro eta akatsak konpondu ez badira, eskatzaileak eskaera bertan behera utzi duela ulertuko da, alde zuzenetik urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikulua ezarritakoarekin bat etorritik ebazpena hartuta.

Eskabidea eta aurkeztutako agiriak egiaztatuta, emandako helbide elektronikora jakinaraziko zaio bonu kanpainari atxikitako entitate gisa onartu dela edo kanpoan utzi dela.

Kanpainan parte hartzeko eskabidea aurkezteko epea:

Araudia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera atxiki ahal izango dira establezimendu eta enpresak. Atxikitzeko eskaerak aurkezteko epea zabalik egongo da programan irauten duen denbora guztian.

8. Bonuen ezaugarriak eta haiek erabiltzeko baldintzak

Bonuak eskuratzea:

Herritarrek era presentzian, atxikitako establezimenduen bitartez, eskuratu ahal izango dituzte bonuak, bai eta helburu horrekin prestatutako aplikazio informatikoaren bidez ere.

Eskuratzen diren garaian ordaindu beharko dira bonuak, eta haiek erosteko ordainketa sistema kreditu edo zordunketa txartela izango da, edo aipatutako entitatearen ordainketa pasabidean onartutako beste edozein ordainbide elektronikoa, baita eskudiruz ere, denda ez badauka ordainbide elektronikorik.

Bonuen erosketa programa indarrean dagoen aldiaren epean egin daiteke, hura finantzatzeko nahiko kreditu dagoen bitartean.

Bonuen trukea:

Kanpainari atxikitako entitatearen establezimenduetan egingo da trukea. Haien zerrenda eguneratua Araba Market-en web orrian emango da argitaratu.

Erosketa tiketaren zenbatekoa bonuen zenbatekoaren berdina edo handiagoa izan behar da, erosketa edo kontsumo bakoitzean erabat agortzeko moduan. Gutxienezko zenbatekoa: 20 euro.

Inola ere ez da itzuliko eskudirurik, ez erosketa egiteko unean, ez eta bonuen bidez erositakoa itzultzekotan ere.

Araba Market bonuak bateragarriak dira administrazioek plazaratzen duten beste edozein bonurekin. Hortaz, metatu ahal izango dira tiket berean islatutako erosketan.

Ematen den dirulaguntzaren zenbatekoa ezin daiteke izan inola ere diruz lagundutako erosketaren balioa baino handiagoa, bakarka nahiz beste laguntza eta dirulaguntzekin eta gainerako diru sarrerekin batera.

Mugak:

Establezimendu bakoitzeko, muga diruz lagundutako 1.504 euro da (3.760 euroko gastua). Muga hori handitu ahal izango da eskariaren egoeragatik komenigarria bada, ahalik eta bonu gehien banatzea ahalbideratzeko, aurreko 6. apartatuan (Programaren indarraldia) jasotzen den bezalaxe.

Bonuak eskuratu edo erabiltzen dituen pertsona fisiko bakoitzeko, muga 80 euroko dirulaguntza da, hau da, 200 euro egiten duten erosketa edo zerbitzuak.

Nola egin bonuen likidazioa Arabako Foru Aldundiarekin eta Vital Fundazioarekin:

Atxikitako entitateek plataformaren bidez bonuak erregistratu beharko dituzte salmentako tiket edo fakturarekin batera, haiek likidatzeko.

Arabako Foru Aldundiak eta Vital Fundazioak, erakunde laguntzailearen bitartez, hamabostaldian behin ordainduko diote establezimenduari ordura arte aurkeztutako bonuen zenbatekoa, banku transferentzia eginez emandako zenbakiko kontu korrontera.

Arabako Foru Aldundiak eta Vital Fundazioak, erakunde laguntzailearen bitartez, laginketa tekniken bidez egiaztatuko dituzte bonuen erabilera egokiari buruz ziurtasuna ematen duten froga-agiriak, eta helburu horrekin froga-agiri horiek bidaltzeko eskatuko diote atxikitako entitateari.

9. Programan parte hartzen dutenen eskubideak eta eginbeharrak

Onuradunen eskubideak eta eginbeharrak:

Kontsumitzaileak, bonuak erostean, onartzen ditu kanpainako baldintzak, agiri honetan jasotzen direnak.

Onuradunek bonua eskuratzen duten unean ordainduko dute haren zenbatekoa, eta atxikitako establezimendu eta enpresetan trukatu ahal izango dute adierazitako muga eguna baino lehen.

Atxikitako establezimenduen eskubideak eta eginbeharrak:

Establezimendu batek, bonuen kanpainari atxikitzean, araudia onartzen du eta hartan ezarritako konpromisoak bereganatzen ditu. Horrenbestez, Arabako Foru Aldundiak eta Vital Fundazioak egin ditzaketen egiaztatze eta kontrol ekintzak onartzen ditu, eta haiek egitean eskatzen zaion informazio guztia eman beharko du.

Atxikitako entitateek bere burua behartzen dute programaren ezaugarrien berri ematera kontsumitzaileei, baita programari buruzko publizitate materialak jasotzera eta establezimenduan ageriko leku batean ipintzera ere. Kendu beharko dituzte deialdi honetan adierazten den establezimendu bakoitzeko bonu mugara heldutakoan.

Establezimenduak bonua onartuko du tiketaren zenbateko osoa edo haren zati bat ordaintzeko bide bezala, eta une orotan berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioak errespetatu beharko ditu bezeroekiko tratuetan. Hala, bonua erabiltzeko eskubidea ezingo zaio ezkutatu ez ukatu hura erabili nahi duen inori, programa indarrean dagoen bitartean.

Atxikitako entitateek bere burua behartzen dute bonuak egiazkoak eta baliodunak direla egiaztatzen. Hortaz, bonuak Araba Market-en funtziona dezan behar diren kopuruak erosketako fakturaz edo tiketaz egiaztatu eta frogatzeko ardua izango dute.

Inoiz ere ez zaie itzuliko kontsumitzaileei eskudirurik erositakoaren prezioaren eta Araba Market bonuaren balioaren arteko aldeagatik, ez erosteko garaian, ez eta haren bidez erositakoaren itzulketa egitekotan ere.

Kontsumitzaileak bonua erabili eta gero, entitatea izango da hura ongi kudeatzeko arduradun bakarra, eta plataformaren bidez erregistratu beharko du salmentako tiket edo fakturarekin batera, hura Arabako Foru Aldundian eta Vital Fundazioan ongi likidatzeko.

10. Interpretazioa

Arabako Foru Aldundiak gorde egiten du zalantzak sortzen dituen edozein egoeratan araudi hau interpretatzeko eskubidea, eta haren erabakiak behin betikoak izango dira.

Illo horretan, deialdi honen punturen bat garatu, aldatu, egokitu edo deuseztatu behar izatekotan—hartan funtsezko aldaketarik sortu gabe—, gaitasuna ematen zaio Arabako Foru Aldundiaren Demografia Erronkaren Zuzendaritzari aldaketa horiek egin ditzan.

11. Konfidentzialtasuna eta datu pertsonalak

Dirulaguntza programa honen esparruan sortzen den informazioa haren berezko xederako baino ez da erabiliko.

Dirulaguntza programa honi atxikitzeko betetako eskabidearen bidez lortutako datu pertsonalak, baita bonuen onuradunen datuak ere, "Araba Market Bonuak" izeneko tratamendu jardueraren barruan tratatu eta hari erantsiko zaizkio. Haren kudeatzailea Arabako Foru Aldundiaren Demografia Erronkaren Zuzendaritza da, eta helburua du Arabako Lurralde Historikoko landa zonetako ekonomia garapen jasangarria, despokatze arriskuaren aurka. Datu pertsonalen tratamenduan honako hauetan ezartzen dena aplikatuko da: batetik, 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa; bestetik, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua, pertsona fisikoak babesteko dena datu pertsonalak tratatzeari eta datuen zirkulazio libreaki dagokionez. Gainera, datuok laguntzen programaren kudeaketarako baino ez dira erabiliko.

Dirulaguntza programa honen indarraldian entitate laguntzaileak edukiko du Arabako Foru Aldundiaren titulartasuneko datuen tratamenduaren ardua. Datu horien tratamenduaren helburu bakarra programa aplikatzea izango da. Horrenbestez, entitate laguntzaileak tratamenduaren kudeatzaileak (Arabako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluaren gidalerroei jarraituz) ematen dituen jarraibideekin bat etorri tratatuko ditu datu pertsonal horiek, ez ditu aplikatuko ez erabiliko beste ezertarako, eta ez dizkie helaraziko beste pertsona batzuei, ez eta artatzeko ere.

Interesdunei beharrezko informazioa eman beharko zaie beren datu pertsonalak erabiltzearen helburuaz, eta baimena emango dute datuok adierazitako helbururako tratatzeko.

12. Aplikatzekoa den araudia

Araudi honetan ezarritakoaz gainera, ondoko hauetan xedatutakoari jarraituko zaio:

- 11/2016 Foru Araua, urriaren 19koa, Arabako Lurralde Historikoren Dirulaguntzena.
- 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntzen Lege Orokorra, eta hura garatzen duen erregelamenduzko araudia.

Halaber, aplikatzekoa izango da ondoko hauetan dirulaguntzen gaiaz xedatutakoa:

- Eusko Legebiltzarraren 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa, eta gainerako araudi osagarria.

– 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, Gardentasunari, Informazio Publikoa Eskuratzeko Bideari eta Gobernu Onari buruzkoa, I. titulua.

– 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Prozedura Erkidearena, eta 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena.

– 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeena.

13. Zuzeneko kontsumorako araba market pizgarri programari atxiki ahal zaizkion denda, establezimendu edo enpresa motak

JEZeko epigrafeak:

64 multzoa. Janarien, edarien eta tabakoen txikizkako merkataritza, establezimendu iraunkorretan egina.

641 taldea. Txikizkako merkataritza: frutak, barazkiak, ortuariak eta tuberkuluak.

642 taldea. Haragi eta hondakinen, haragi gai eta haragiki landuen, arrautza, hegazti, abeletxeko untxi eta ehizakien eta beraien ekoizkin eratorrien txikizkako merkataritza.

642.1 epigrafea. Haragi eta hondakinen; haragi gai eta haragiki landuen, arrautza, hegazti, abeletxeko untxi eta ehizakien; eta beraien ekoizkin eratorrien txikizkako merkataritza.

642.2 epigrafea. Harategi-urdaitegietan egiten den honakoen txikizkako merkataritza: haragi freskoa eta izoztua, hondakinak, eta haragi gai eta haragikiak, arrautzak, hegaztiak, abeletxeko untxiak, ehizakiak eta horien ekoizkin eratorriak.

642.3 epigrafea. Harategi-urdaitegietan eta antzekoetan egiten den honakoen txikizkako merkataritza: haragi freskoak eta izoztuak, hondakinak, harakintzatiko ekoizkinak eta haragi-gai freskoak, gordinak, apailatuak, urdai gazituak, odol hestebeteak (odolkiak) eta halako ezau-garriak dituzten bestelako produktu tradizional lizentziadunak, bai eta arrautzak, hegaztiak, abeletxeko untxiak, ehizakiak eta horien ekoizkin eratorriak ere.

642.4 epigrafea. Harategietan egiten den honakoen txikizkako merkataritza: haragi freskoa eta izoztua, hondakinak, eta haragi gai eta haragikiak, arrautzak, hegaztiak, abeletxeko untxiak, ehizakiak eta horien ekoizkin eratorriak.

642.5 epigrafea. Txikizkako merkataritza: arrautzak, hegaztiak, abeletxeko untxiak, ehizakiak eta produktu eratorriak.

642.6 epigrafea. Hondakin saltokietan egiten den abastuko animalien, fresko eta izoztuen errai eta hondakinen txikizkako merkataritza.

643 taldea. Arrainen eta arrantza eta akuikulturako beste ekoizkinen eta barraskiloen txikizkako merkataritza.

643.1 epigrafea. Arrainen eta arrantza eta akuikulturako beste ekoizkinen eta barraskiloen txikizkako merkataritza.

643.2 epigrafea. Bakailaoaren eta beste arrain gazitu batzuen txikizkako merkataritza.

644 taldea. Txikizkako merkataritza: ogia, pastelak, konfiteak eta antzekoak, esnea eta esnekiak barne.

644.1 epigrafea. Txikizkako merkataritza: ogia, pastelak, konfiteak eta antzekoak, esnea eta esnekiak barne.

644.2 epigrafea. Ogi, ogi berezi eta opilen saltokiak.

644.3 epigrafea. Txikizkako merkataritza: gozogintza, opilgintza eta konfitegintzako ekoizkinak.

644.4 epigrafea. Txikizkako merkataritza: izozkiak.

644.5 epigrafea. Bonboien eta karameluen txikizkako merkataritza.

644.6 epigrafea. Txikizkako merkataritza: oreki frijituak (estaliak edo estalgabeak nahiz beteak edo betegabeak), patata frijituak, janaurrekoak, fruitu lehorrak, gozokiak, txokolatezko prestakina eta edari freskagarriak.

645 taldea. Txikizkako merkataritza: denetariko ardoak eta edariak.

646 taldea. Tabako gaien eta erretzailearentzako artikuluen txikizkako salerosketa.

646.1 epigrafea. Txikizkako merkataritza: klase eta tankera guztietako tabako gaiak, saltoki orokor, berezitu eta barnekoetan.

646.8 epigrafea. Erretzaileentzako artikuluen txikizkako salerosketa.

647 taldea. Oro har, jangaien eta edarien txikizkako merkataritza.

647.1 epigrafea. Mota guztietako jangaien eta edarien txikizkako merkataritza, saltzailedun establezimenduetan.

647.2 epigrafea. Mota guztietako jangaien eta edarien txikizkako merkataritza, autozerbitzuko erregimenean nahiz erregimen mistoan, salmenta aretoak 120 metro koadro baino gutxiagoko azalera duen establezimenduetan.

647.3 epigrafea. Txikizkako merkataritza: mota guztietako jangai eta edariak, autozerbitzuko erregimenean nahiz erregimen mistoan superzerbitzuetan, hala baiteritze saltegiaren saltzeko gelak 120 eta 399 metro koadro artean dituen.

647.4 epigrafea. Mota guztietako jangai eta edarien txikizkako merkataritza, autozerbitzuko erregimenean nahiz erregimen mistoan, saltzeko gelak 400 metro koadro edo handik gora dituen.

65 multzoa. Elikadurarako ez diren ekoizkin industrialen txikizkako merkataritza, establezimendu iraunkorretan egina.

651 taldea. Txikizkako merkataritza: ehungintzako produktuak, jantzigintza, oinetakoak, larruak eta larruzko artikulua.

651.1 epigrafea. Etxerako ehungintza gai eta jantzi gaien, alfonbra eta antzekoen txikizkako merkataritza, bai eta tapizgintza gaiena ere.

651.2 epigrafea. Gorputz eta bururako mota guztietako jantzien txikizkako merkataritza.

651.3 epigrafea. Txikizkako merkataritza: arropa zuria eta kortseteria.

651.4 epigrafea. Mertzeria eta paketeriako gaiak txikizka saltzea.

651.5 epigrafea. Txikizkako merkataritza: jantzi bereziak.

651.6 epigrafea. Zapata, larruzal gai eta imitazio gai nahiz ordezeko ekoizkin, gerriko, kartera, zorro, maleta eta, oro har, bidaiagaien txikizkako merkataritza.

651.7 epigrafea. Txikizkako merkataritza: larruzko jantziak.

652 taldea. Sendagaiak eta farmazia produktuak txikizka saltzea; drogeria, garbiketa eta lurringintzako gaiak eta mota guztietako kosmetikoak eta oro har produktu kimikoak txikizka saltzea; belar dendetan belarrak eta landareak txikizka saltzea.

652.1 epigrafea. Farmaziak: Sendagaien, osasun produktuen eta higiene pertsonaleko produktuen txikizkako merkataritza.

652.2 epigrafea. Drogeria, lurringintza, kosmetikako eta garbiketako gaien, pintura, berniz, disolbatzaile, paper eta dekoraziorako beste ekoizkin batzuen eta kimikako ekoizkinen txikizkako merkataritza.

652.3 epigrafea. Lurringintza eta kosmetikako ekoizkinen eta norberaren higie eta garbiketarako gaien txikizkako merkataritza.

652.4 epigrafea. Belar dendetan landareak eta belarrak txikizka saltzea.

653 taldea. Etxeko ekipamendu eta eraikuntzarako gaien txikizkako merkataritza.

653.1 epigrafea. Altzariak (bulegokoak izan ezik) txikizka saltzea.

653.2 epigrafea. Txikizkako merkataritza: material eta aparatu elektrikoak, elektronikoak eta elektratesnak, argindarrak ez beste energia mota batez abian jartzen diren etxe erabilerako bestelako aparatuak eta sukaldeko altzariak.

653.3 epigrafea. Apaindura, opari eta erakargarritasuneko tresna eta burdinkien txikizkako merkataritza (imitaziozko bitxiak eta elektratesna txikiak barne).

653.4 epigrafea. Txikizkako merkataritza: eraikuntzako materiala eta saneamenduko gaiak eta altzariak.

653.5 epigrafea. Txikizkako merkataritza: ateak, leihoak eta pertsianak, moldurak eta markoak, tarimak eta mosaiko-parkeak, saskiak eta kortxozko artikuluak.

653.6 epigrafea. Brikolajeko artikuluak txikizka saltzea.

653.9 epigrafea. Beste atal batzuetan jaso ez diren etxeko ekipamendurako gaien txikizkako merkataritza.

654. taldea. Lurreko ibilgailuen, aireontzien nahiz itsasontzien eta makineriaren txikizkako merkataritza. osagarriak eta ordezkotako piezak.

654.1 epigrafea. Txikizkako merkataritza: lurreko ibilgailuak.

654.2 epigrafea. Txikizkako merkataritza: lurreko ibilgailuentzako osagarriak eta ordezkotako piezak.

654.5 epigrafea. Mota guztietako makineriaren txikizkako merkataritza (etxeko aparatuak, bulegokoak, medikuenak, ortopedikoak, optikoak eta argazkigintzakoak izan ezik).

654.6 epigrafea. Txikizkako merkataritza: ibilgailu mota guztietarako gurgilazalak, bandak edo bandajeak eta aire ganberak.

656 taldea. Txikizkako merkataritza: ondasun erabiliak (altzariak, janzkiak eta etxean erabili ohi diren tresnak).

657 taldea. Txikizkako merkataritza: denetariko musika tresnak eta haien osagarriak.

659 taldea. Bestelako txikizkako merkataritza.

659.1 epigrafea. Bildumagileentzako zigilu, moneta, oroia domina eta billeteen, artelanen eta antzinako gauzen, bildumetako edo banakako mineralen, fosilen, intsektuen, maskorren, landareen eta animalia disekatuen txikizkako merkataritza.

659.2 epigrafea. Bulegoko altzariak eta bulegoko makinak eta ekipoak txikizka saltzea.

659.3 epigrafea. Txikizkako merkataritza: medikuntzako, ortopediako, optikako eta argazkigintzako aparatuak eta tresnak.

659.4 epigrafea. Liburu, egunkari, papergintzako osagai eta irudi eta arte ederretako salgaien txikizkako merkataritza.

659.5 epigrafea. Harri bitxigintza, erlojugintza, zilargintza eta imitaziozko bitxikien txikizkako merkataritza.

659.6 epigrafea. Txikizkako merkataritza: jostailuak, kirol gaiak, kirol janzkiak (jantziak, oinetakoak eta kapeluak), armak, kartutxoak eta pirotekniako gaiak.

659.7 epigrafea. Hazien, ongarrien, loreen, landareen eta animalia txikien txikizkako merkataritza.

659.8 epigrafea. Txikizkako merkataritza: "sex-shop" deritzenak.

659.9 epigrafea. Multzo honetan zehaztu gabeko bestelako ekoizkinen txikizkako merkataritza, 653.9. epigrafean sailkatu behar direnak izan ezik.

66 multzoa. Salmenta misto edo integratua; establezimendu finkotik kanpoko txikizkako salmenta (salmenta ibiltaria, azoka txikiak eta noizean behingo edo aldizkako azokak); biltegi erakusketa erregimeneko eta aparatu automatikoen bidezko salmenta; posta eta katalogo bidezko zenbait ekoizkinen txikizkako salmenta.

661 taldea. Azalera handietako salmenta misto edo integratua.

661.1 epigrafea. Saltoki handietako merkataritza, halakotzat joz hainbat produktu gamaren aukera zabal eta, oro har, erabateko bat eskaintzen duten saltegiak (nagusiki etxea hornitzeko gaiak, jantzigintzakoak, oinetakoak, lurringintzakoak, elikagaiak eta abar), hainbat sailetan aurkezturik; oro har, salmentako langileekin, eta bezeroaren eskura hainbat zerbitzu ipiniz.

663 taldea. Saltoki finko batetik kanpoko txikizkako merkataritza (ibiltaria, merkatu txikiak eta noizean behingo edo aldizkako merkatuak).

663.1 epigrafea. Jangaien txikizkako merkataritza, baita edari eta izozkiena ere, merkataritza establezimendu finko batetik kanpo.

663.2 epigrafea. Ehungintza gaien eta jantzigintza gaien txikizkako merkataritza, merkataritza establezimendu finko batetik kanpo.

663.3 epigrafea. Oinetakoen, larruen eta larrugintza gaien txikizkako merkataritza, merkataritza establezimendu finko batetik kanpo.

663.4 epigrafea. Drogeriako gaien, kosmetikoen eta, oro har, produktu kimikoen txikizkako merkataritza, merkataritza establezimendu finko batetik kanpo.

677 taldea. 67 eta 68 multzoetako 671, 672, 673, 681 eta 682 taldeetan sailkatutako establezimenduek emandako zerbitzuak, establezimendu horietatik kanpo eginak. Bestelako janari zerbitzuak.

75 multzoa. Garraioari lotutako jarduerak.

755 taldea. Bidaia agentziak.

67 multzoa. Janari zerbitzua.

671 taldea. Jatetxeetako zerbitzuak.

671.1 epigrafea. Bost sardexkakoak.

671.2 epigrafea. Lau sardexkakoak.

671.3 epigrafea. Hiru sardexkakoak.

671.4 epigrafea. Bi sardexkakoak.

671.5 epigrafea. Sardexka batekoak.

672 taldea. Kafetegietan.

672.1 epigrafea. Hiru kizarakoak.

672.2 epigrafea. Bi kizarakoak.

672.3 epigrafea. Kikara batekoak.

673 taldea. Kafeak eta tabernak, janariarekin eta janari gabe.

- 673.1 epigrafea. Kategoria berezikoak.
- 673.2 epigrafea. Beste kafetegi eta taberna batzuk.
- 674 taldea. Jatetxe, kafetegi eta kafe-taberna zerbitzu bereziak.
- 674.1 epigrafea. Trakzio mekanikoko ibilgailuetako zerbitzua.
- 676 taldea. Zerbitzuak txokolategi, izotz denda eta hortxata dendetan.
- 96 multzoa. Aisialdi eta kultura zerbitzuak.
- 969 taldea. Bestelako aisia zerbitzuak, beste atal batzuetan jaso gabeak.
- 969.1 epigrafea. Dantzaleku eta diskotekak.
- Ostatu zerbitzuak (nekazaritza-turismoa, turismo aterpetxeak, apartamentuak, kanpinak, landetxeak, autokarabana eremuak eta hotelak).
- 681 taldea. Hotel eta moteletako ostatu zerbitzua.
- 682 taldea. Hotel eta pentsioetako ostatu zerbitzua.
- 683 taldea. Apopilo etxeetako ostatu zerbitzua.
- 684 taldea. Hotel-apartamentuetako ostatu zerbitzua.
- 687 taldea. Turismo kanpalekuak, gutxieneko osasun zerbitzuak ematen dituztenak, hala nola edateko ura, konketak, harraskak, etab.
- Bitartekaritza enpresa hartzaileak.
- Turismo gidariak.
- 882 taldea. Turismo gidariak.
- 883 taldea. Turismo gidari-interpretariak.
- Izadiko kirol jardueren (hala nola turismo aktiboa) eta abentura jardueren enpresak.
- Turismo ibilbideak egiten dituzten garraio enpresak.
- 612 taldea. Lurreko ibilgailuen gidariak.
- 756.1 epigrafea. Garraio Agentziak - kudeatzaileak.
- 756.9 epigrafea. Garraio-artekaritzako beste zerbitzu batzuk.
- 721.2 epigrafea. Autotaxi bidezko garraioa.
- 721.3 epigrafea. Errepide bidezko bidaiari garraioa.
- 733.1 epigrafea. Itsasbazterreko eta lur barruko bide nabigagarrietako bidaiari garraioa.
- 733.3 epigrafea. Transbordadore, ferry-boat eta antzeko zerbitzuak.
- Kultura, gastronomia eta natura ondarea ezagutarazten duten enpresak.
- 966.9 epigrafea. Bestelako kultura zerbitzuak, beste atal batzuetan jaso gabeak.
- Aisia zentroak.
- 972 taldea. Ile apaindegiak eta apaindegiak.
- 972.1 epigrafea. Gizonezko eta emakumezkoentzako ile apainketako zerbitzuak.
- 972.2 epigrafea. Apaindegiak eta estetika kabineteak.
- 981 taldea. Lorategiak, aisia edo jolas parkeak, ur parkeak eta irristaketa pistak.
- 83 taldea. Osasun arloko profesionalak.
- 84 taldea. Osasunaren kideko jarduerekin lotura duten profesionalak.
- 86 taldea. Lanbide liberalak, arte eta literatura lanbideak.

965.1 epigrafea. Areto eta lokaletan ematen diren ikuskizunak.

965.2 epigrafea. Aire zabalean ematen diren ikuskizunak.

965.3 epigrafea. Establezimendu iraunkorretik kanpoko ikuskizunak.

965.4 epigrafea. Ikuskizun enpresak.

659.4 epigrafea. Liburu, egunkari, papergintzako osagai eta irudi eta arte ederretako salgaien txikizkako merkataritza.

856.2 epigrafea. Bideo filmen alokairua.

963 taldea. Zinema filmen eta bideoen emanaldia (zineak).

615.6 epigrafea. Arte galeriak.

659.1 epigrafea. Bildumagileentzako zigilu, moneta, oroi domina eta billeteen, artelanen eta antzinako gauzen, bildumetako edo banakako mineralen, fosilen, intsektuen, maskorren, landareen eta animalia disekatuen txikizkako merkataritza.

966.1 epigrafea. Liburutegiak eta museoak.

861 taldea. Pintoreak, zizelkariak, zeramikariak, artisauak, grabatzaileak eta antzeko artistak.

657 taldea. Txikizkako merkataritza: denetariko musika tresnak eta haien osagarriak.

755 taldea. Bidaia agentziak.

14. Beharrezko dokumentazioa

Establezimenduak Araba Marketeko zuzeneko kontsumorako pizgarri programari atxiki ahal zaizkio formulario elektronikoa betez, datu guztiak behar bezala jarrita, eta hari honako hauek erantsiz:

– Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan, deialdi honen gaia den jarduerari dagokion epigrafean alta emanda dagoela egiaztatzen duen agiria.

– Bere izenarekin kontu korrante baten titularra dela egiaztatzen duen agiria.

– Establezimenduaren irudia.

15. Hartutako konpromisoak

Establezimendu edo entitateak, atxikitze eskaera egitean, honako konpromiso hauek hartzen ditu bere gain:

– Ezagutzen eta onartzen dituela Araba Marketen zuzeneko kontsumorako pizgarri programa kudeatzeko ezarritako baldintzak.

– Egunean dagoela Ogasunarekiko bere zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen.

– Programari atxikitzen zaiola eta hartan ezarritako konpromisoak betetzeko konpromisoa hartzen duela.

– Programari atxikitzeak berekin dakarrela hartan parte hartzea, salbu eta programa bukatu baino lehenago edozein momentutan idatziz adierazten badu hari uko egin nahi diola.

– Kontsumitzaileei programaren ezaugarrien berri emateko konpromisoa hartzen duela.

– Bere establezimenduan ikusgai dagoen leku batean programaren material bereizgarria erakusteko konpromisoa hartzen duela.

– Ez diela itzuliko kontsumitzaileei eskudirurik erositakoaren prezioaren eta Araba Market bonuen balioaren arteko aldeagatik, ez erosteko garaian, ez eta haren bidez erositakoaren itzulketa egitekotan ere.